

**EBANJELIZATZE BARRIA,  
BAI ETA KRISTAU BARRIA BE**

### **I. Sarrera**

1. Gai eta izen egokiak. Ebanjelizatze barria dala eta, berba asko gabiltzala egiten esan izan da. Nik uste ez dala ixiltzeko ordua eldu, ordeztu beste gai batez arduratzeko jarraian; izatekotan, arriskua beste onetan datza: berba ugari eginez, ezer zertzik aztertu eta erabagi barik eta, batez be, ebanjelizatze barri ori egiteetara eroan barik, itz orokorretan gelditzean.

Bi alderakoa izateagaitik be (anbiguidadea) izen ori baztertea egoki izango litzakela diñoenak be badira. Bitarakoa zertan dartzan ikusteko ere izango dogu: baiña, dana dala, anbiguidadeak argitzeko dira, eta orretarako dogu gogoeta teolojikua eta pastoralak. Izen ori ez dogu baztertu bear: a) berez, itz biotan erakoa dogulako, eta b) anbiguidadea itzetan barik, arazoa sortzen dauan egoera objetiboan eta onen azterketan eta urtenbideetan dagoalako. Baiña azterketa eta urtenbide ezberdiak ditugulako ezin daiegu arazo objetiboa bertanbera itzi, ezbalitz legez; arazoa, esate baterako, au dogu: kristau fedea izan dan errialdeetan ez dala bear beste esanitsu, eta munduko egoeraren aurrean ez dala bear beste indartsu agiri. Arazo oneetara biurtu bear dogu, eta ebanjelizatze barria bearrezkoa dala autortu.

2. Ebanjelizatze barriak kristau barria esan gura dau, ebanjelizatzailea eta artzailea. Argi dago ebanjelizatze barria kristau barria sortzeko dala; baiña emen berariz aipatuz, au azpimarraitu nai dogu: ebanjelizatze barria, azken baten, ez daitela errealdadea ikutzen ez dauan jarduna izan; ideiak, eskakizunak, erri-toak bearbada aldatuz, kristau bera ez daitela lengoan geratu. Ebanjelizatze barriak elburu au dau guztiz: kristauak pentsakera, sentiketa, jarrera barria izan dagiala. Au, barriz, ez da besterik espiritualitate barria baiño.

3. Alan be kristau barria ebanjelizatze barriak sortu bear dau; alkarri lotuta dagoz. Zelako ebanjelizatzea alako kristaua berez; nai ta ondorio konkretoan, jakiña, beste indar askok eragiña izan (gaur, esate baterako, kristau egoeran munduaren konzientzi eta kulturaren eragiña agirikoa da).

## II. Ebanjelizatze barria

Orregaitik, asi gaitez ebanjelizatze barriari buruzko gairik beiñenak gogoratuz. Era bitara ulertzen da barritasuna: 1) *Bigarrenez* edo *barriro ebanjelizatu* bearra dogu leenengo eta argiena. Esanai onek leen ebanjelizatutako lurraldeak ditu gogotan, batez be Europa eta Amerika. Nai ta lurralde bakoitzean egoera oso ezbaridiñak izan, bietan ikusten da orokorki barriro ebanjelizatu bearra. 2) Beste esanaiak ebanjelizatzeak, bigarrenezkoa ezeze, *barria* izan bear dauala azaltzen dau. Leengoa era bardiñean emotea ez litzakela naikoa. Eta, beraz, ebanjelizatze barria ez da leengo kristau lurraldeetara mugatzen: misió guztiak artzen ditu barruan. Ebanjelizatze barri au be geienentzat dago argi zelanbait. Joan Paulo II.aren berbak ekarriko ditugu: "La novedad de la acción evangelizadora a que hemos convocado afecta a la actitud, al estilo, al esfuerzo y a la programación o, como propuse en Haití, al ardor, a los métodos y a la expresión" (*Santo Domingo. Nueva Evangelización, Promoción humana, Cultura cristiana*. Discurso inaugural del Santo Padre, n. 10)

Onaño beintzat erreza litzake bat etortea. Baiña emetik aurre-  
ra eritzi banakuntza daukagu eta anbiguidadea: "¿Cómo hacer  
accesible, penetrante, válida y profunda la respuesta al hombre  
de hoy, sin alterar o modificar en nada el contenido del mensaje  
evangélico? ¿Cómo llegar al corazón de la cultura que queremos  
evangelizar? ¿Cómo hablar de Dios en un mundo en el que está  
presente un proceso creciente de secularización?" (ibid).

Expresabideak, adierazpideak bai, baiña ez "edukia". Edukiaz  
zer esan gura dan ikusteko, itzaldi berean irakurri daigun: (por-  
tugesez dagoana itzuli egiten dot) "Ebanjelizatze barria ez datza  
'ebanjelio barri' batean, geuganik sortuko litzakenean, geure  
kulturatik edo gizonaren bearrizanai buruzko geure azterketatik.  
Orregaitik, ez litzake 'ebanjelioa' izango, giza eskakizun utsa  
baiño, eta ez litzake bertan salbamena aurkituko" (bertan, 6)

Edukiak ikutzea Ebanjelioa aldatzea litzake: emen daukagu,  
barriro, ermeneutika arazoa, oso argi aurkezturik: adierazpideak  
bai, edukiak ez. Ezin gaitkeez arazo teoriku onetan sartu (bein ta  
betiko soluzio-biderik euki be ez daukana, bearbada). Alan be,  
zer dan adierazpidea eta zer edukia dago emen auzian. Adieraz-  
pideak edukia leengo era berean izten badau, ze adierazpide ba-  
rri da ori, eta non datza barritasuna? Non amaitzen da adierazpi-  
dea eta non asten edukia? Baiña itaun abstraktoak itzi eta jo dai-  
gun konkretora. Kristau fedea, siñistu bearreko dotriña zerrenda  
lez azaltzen bada, edo, bestera, Jesus Jauna onartzea lez: adie-  
razpidea aldatzen da or ala edukia? Kristau aurkezpenean legeak  
eta bildurrak izaten badabe zatirik andiena, eta ez graziak eta ba-  
rri onak, azalpidea dogu ori ala edukia? Antzeko itaunak egiten  
jarraitu leiteke, Elizaren istoriari begira eta geure bizikizunak go-  
goan izanik; eta bide orrek zuzen garoaz arazoaren gunera.

Edukiak ikutu-eziñak dirala azpimarratzen danean, Ebanje-  
lio aldatu-eziña dala esan nai da. Jakiña, kristau fededunak bat  
datoz asmo onegaz. Baiña Ebanjelio ori istorian zear beste zer  
batzuekaz naastu da, eta au leenengo kristau komunitatetik asi-  
ta. Ebanjelioa gaur berreskuratzeke, zer orrek ikutu bearra da-

go. Beraz, auzia ez da "eduki" ala "adierazpide" esan bear jakon aldatzen dan orri. Auzia zer dan Ebanjelioa dogu eta zelan dan gizakiarentat barri ona. Beste alde batetik, argi dago era askotara emona eta artua izan dana istorian zear. Au aipatuz Ebanjelioa bera aurkitu gura dogu gaurko gizonarentzat.

Ebanjelizatze barriaren zutabeak oneek izan leitekez:

a) Barri ona barri ona danez aurkitzea. Ezin gaitkez au baiezen nekatu, ebanjelizatze barriaren barritasuna leenengo emen dago eta: barri on alaia izatean, bere berezko erakertasunean, gizakiaren ixilleko bearrian eta itaunei erantzutean. Ez dau onek kurutzea aastutzen eta kristau eskakizunak eta jasan-beara ezeztatzen; bai, ostera, guzti ori barri onaren barruan artzen.

Kristau istoriaren punturik illunetarikoa Barri ona "lege" biurtu izatea dogu (San Pauloren izkera erabilliz). Au egiz edozein erlejiñoren barru-istoriako fenomeno da, Jaungoikoaren aurrean gizakiak dauan jarrera bikoitza: "legearen" bidez Jainkoa eta betikotasuna ziurtatzea. Baiña Ebanjelioak ebanjelio izan bear dauanez, bein ta barriro askatu bear da, San Paulori jarraituz, "legetik": grazia eta bizia ekarten agertu bear dau, ez bizitzako beste zama bat.

b) Barri on orretan, kristau errealdade bikoitza semetza eta anaitasuna dira. Eduki oneek baldintzatzen dabe kristau jarrera guztia.

c) Esandakoari oso loturik dator askapena, ain garrantzitsua Alkartasun Barrian eta sarritan ain galdua istorian zear. Semeen askatasuna, eta solidaridadeak sortzen dauan askapena; askatasun solidarioa beraz.

d) Inkulturapena. Emona dan barri ona, batera, giza biotz eta bizitik urtena izan daiteela. Onek, erri eta kultura ezbarriñekin dan zerikusia. Baiña baita gaurko kultura unibersalak aurkezten dituan aupadekin be. Biak dira zaillak egitez, ez gitxiago bigarrena. Sekularizazio kulturaren, zer da kristautasuna? Zelan sortu kristau fedea sekularizazioaren barruan? Erlejiño zentzua berez

galdu edo gitxitu dauan kultura dogu; gizarte bizitza Jaungoiko barik eratzen dan lekua. Kristau fedea, zelan edo alan, "salbamenena" eskeintzen dau. Baiña salbamen berrizanik asmatzen ez dauanak ezin leike berez mezu ori onartu, eta ulertu be ez. Gaurko gizakiak, leku askotakoak beintzat, salbamen istorikoa bai bear dau, eta neurri orretan ulertzen dau zer dan (neurri baten, diñogu: guztizkoa zer dan ezin leike jakin, gizona bera zer dan jakin barik, eta emen banatzen dira filosofiak eta erlejiñioak). Baiña gaurko gizakiak salbamen istoriko ori bere eskuz lortu bear dauala ikusten dau. Alan be, ez dira oneek izakera absolutoak, jokerak baiño; berez ez dagoz Ebangelizatze barriarentzat zarratuta, zaillago izan arren aren agerpena. Au ezin leiteke burutu restaurazioaz, au da, sekularizazioa txartzat epaitu eta leengo pentsakera erlejiósora biurtzen aaleginduz. Sekularizazioa, berez, gizonak munduarekiko lortu dauan jakite eta kontzientzia da: au ezin leiteke ukatu. Eta kontzientzi egoera ori, nai ta alde batetik zaila lez agertu, bestetik kristau fedea jatorrezko aukerea dogu.

Au esatean ez da Ebanjelioa mundanizatu gura, onargarri egiteko munduko edozein erizpide eta jarrera onartzuz. Orretarako ez litzake Ebanjeliorik bear, danari alperriko bedeinkapena emotea litzake ta. Ebanjelioak *Barri* ona dakar, gizarterako ondorioak dituana, eta, beraz, bereiztzaille, kritikoa da. Au, baiña, gaurko gizonak lortu dauan kontzientziaren barruan: orrela bakarrik izan leiteke benetan barriona eta kritikoa. Au da ain zuzen be inkulturapena. Egoki gogoratzen dau Joan Paulo II.ak: "Ebanjelizatze barria ez da sortzen 'gizonai atsegin emoteko' guraritik, edo 'euren txaloa lortzearren' (Gal 1,10), Jaungoikoak Kristogan egiten dauskun doaiaganako erantzukizunetik baiño" (ib. 6). Kritika profetikoa, alan be, gizonaren onean, zorionean, oiñarritzen da guztiz.

### III. Kristau barria

"Barria" itza erabilikeran, badakigu erlatibotasunez ulertu bear doguna, baiña egoki da emen gogoratzea. Ez ditugu gi-

txiesten gure aurreko kristauak, ez leenengo gure fedearen lekukoak, ez santuak, ez geuk ezagutu eta ezagutzen ditugun kristau apalak. Leena ezabatu ordez, andik bizi garala autortzen dogu. Geiago dana, ez dogu adierazi nai emen esandakoak orain arte guztiz aurkitu bakoak ziranik. Guk ezin geinke ezetarikorri arrokeri edo pretensiori biderik emon. Aldia illuna dogu, bideak ezabatu egin jakuz. Beraz, apaltasuna dagokigu. Alan be, "barria" erabilliz, gaurko kontzientziaren, kulturaren, orizontea dogu gogoan, eta, batera, kristautasunaren barritasuna. Gaurko kontzientzi ori geu be bagara, eta ez dogu gaurko mundua kanpotik lez ikusten. Geure kontzientzi eta fede barruan jazoten da diñogun arazoa. Eta, orrela, "kristau barria" esanez, gaurko kontzientzi barruan kristau fedeak artu bear dituan izakerak adierazi nai ditugu.

Kristau barriaz itz egiteak ebanjelizatze barriaren guna azaltzen dauku: au ez da bide utsa, izakera barria baiño, espiritualitate barria. Espiritualitate bakoak gauzak (barriak be bai) egiten ditu. Espiritualitateak beste izakera batez burutzen ditu. Ori adierazteko, istorian, "barnu" irudia erabilli izan da, anbiguidadearen arriskua dauana. Sakontasun irudia be erabilli leiteke, edo kalitatea, personalizazioa, identifikazioa: siñisten eta komunikatzen danagaz bat egitea, batez be Kristogaz eta anai-arrebekin.

Kristau barriaren izakera au alderdi oneek osotzen dabe (batzuk aipatzeko, eta izakera ori zeaztutzen aalegintzeko):

1) Kristau onek *fede personalagoa* izango dau. Au, berez, ez da ezer barririk, baiña gaurko egoera soziolojikoan eta kontzientzian azpimarratu bearra dago. a) Gizarte, etxeko tradiziño, erri-oiuretatik askea: errealitate oneek geroago eta gitxiago lagundu edo baldintzatuko dabelako bakoitzaren fedea (nai ta bakoitzaren fedea gizarte baten sortu beti be). b) Auzian dagoan gaia beragaitik: benetako fedeak bizi-egia dan orrekin topo egitetik sortu bear dau, eta bein ta barriro sortuz joan, eta ez, azken baten, kanpoko eragiñen ondorio uts bezala. Kristau ko-

munitateak (Elizak) emongo dan Kristoren barri ori, eta kristau fedeak komunitatea sortzen dau bere izakera barrutik. Baiña komunitate ori olako fede personalez eratutakoa izan daiten joko dau gaurko kristauak. Komunitatea be biziagoa izango: batzuk artzaille utsak eta besteak emoillean izan ordez, danak artu eta danak emongo dabelako. Fedearen bizikizuna izan bearko dabe, fede ez danetik bereiztuz eta aren erakarpen objetiboa ikusiz eta onartuz.

2) Kristoren ondoan, *seme eta anai jarrera* da Kristautasunaren guna (beste era batera be esan leiteke, baiña Alkartasun Barriko irudiak, eta giza esperientzian beti sakonak, darabilguz). Jarrera: zer "sinesten" dau benetan kristauak, zerk betetzen dau, zer da kristau bizitza guztiaren oinarria eta zioa, zerk baldintzatu bear dau beste guztia. Zer asmatzen da, Kristoren ondoan, Jainkoaz eta gizonaz, zergaitik bizi izan da kristau mezua asikeratik barri on bezala. Alkartasun barrian, jakiña, oinarritzko bizikizun bikoitz onen ondoan badagoz beste batzuk be: esate baterako, Kristok gogor egiten dautse fariseatarrai eta abarri. Testo oneek or dagoz, baiña guztiak esandako eduki bikoitz orretan oinarritzen dira. Jaungoiko eta lagun-urkoaganako maitasuna ez dira testo batzuk, besteen ondoan, ebanjelio bera baiño.

Eduki au beti izan Elizaren irakasian. Alan be, sarritan, beste askoren ondoan, batean baieztatzen dana bestean illunduz (edo ezeztatuz, askoren kontzientzian); azken baten, dotriña zerrenda bat sinesten dala. Gure aurreko askok eta askok maite izan dabe Jaungoikoa, duda barik, eta lagun-urkoagaz be jarrera benetan kristaua izaten aalegindu dira, nai ta artutako mezuan legeri naiko gogorraren barruan agertu eduki bikoitz a. Beste askok noraeza bizi izan dabe bearbada, bizitza astunaren gainean; alan be, azken baten, graziaren azken konfiantza eta itxaropena eltzen jakela guk uste, nai ta gure berbak eta irakatsiak sarritan ez egokiak izan. Besteak gogoratzean geu be or sartzen gara.

Barri au argitu naiean, ez dogu geuk aurkitutakotzat emoten: Ebanjelioa da gure ardurea, eta orrek balio dauSKU, kristauak garanez. Gaur eta biar eta beti kontzientzian argi jarri bearrezkotzat ikusten doguna, beste erlejiño-errealitate guztien gainetik.

*Kristoren ondoan*, diñogu, ez Kristoren bidez bakarrik, irakatsi utsa balitz lez; Kristogan, Kristorekin: seme eta anai esperientzia beragan egiten dogu beti. Semeagan seme, Semeagan Aitaren bizikizuna. Bizipen beti barria, emona, grazizkoa (eta Espirituaren bizipena orrela). Dogma eta morala ona biurtu bear dira: edo ez dira bearrezko edo guztiz oinarrizko kristau izate onetatik sortu bear dira.

Badakigu "esperientzi" onek ez dauala istoriaren, aldiaren, illuna kentzen. Ain zuzen be, orrexegaitik, guk (ez guk bakarrik) illuntasun orren bizipena ain indartsu asmatzen dogulako, biurtu bear dogu asikerako esperientzi aretara, beste guztiak ez dauskue laguntzen eta. Fedeak berak garoaz gun onetara, ez barrikeriak. Beraz, seme-esperientzia diñogula ez dogu sentimendu umeti eta gaixora iges egiten: gaurko illunaren barruan, au ukatu barik, irabazten dan grazizko bizikizuna da. Bizikizuna edo esperientzia dala esanez personala dala adierazo nai dogu, ez ikasi dan formula, kanpoko jakingarri edo barri utsa.

Seme-anai mezua: utopia utsa, munduak mundu izaten jarraituko daualako? Gure mundua, edo bizia, guztiz aldatzen ez daualako? Ona emen barriro be gure fedea ezin daitekela inuentzizkoa izan. Baiña au autortuz batera, beste au be autortzen ausartzen gara: millegro ikusgarri barik, era neurritsuan aldatzen gaituala, gizakiaren sustrai onak berbizen dituala. Kristoren ondoan artzen dana egia eta erantzukizun eta itxaropen da batera. Gatozen giza esperientzira: justiziaren asmapena, justizia beingoan ezarten ez dala eta, baliobako utopitzat bertanbera itzi bear ete da? Ez, justiziak beti deitzen dau barriro. Kristau seme eta anai bizikizunak be bein ta barriro deitzen dau, eta deitze orretan da emoa be.



3) *Otoitzean eta solidaritatean* dator bere izatera seme eta anai bizikizuna. Or asmatzen da, gorpuzten, errealidade egiten.

Otoitza: fede-bizieraren muiña. Semetza (eta anaitasun) esperientzia otoitzean onartzen da, berbizten, geuganatzen. Otoitz jarduketa bereziak ez dira, jakifia, otoitza bera, eta guk, erra-zoiz, jarduketa orreen zentzu kritikoa lortu dogu; autojustifikatzea, azala, norberekeria izan leitekez (erlejiño guztia lez). Baiña indar bardiñaz autortu bear dogu otoitz barik ez dagoela fede-bizitzarik. Era askotara egiten da otoitz, eta bizitzak eraginda, erakarrita, ia konturatu barik, sarritan. Baiña otoitz barik, gure ospakizunak, oikuneak, irakatsiak, ekintzak, utsalak izan leitekez, barru bakoak, doai bakoak. Fedea dauanak otoitz egiten dau. Eta zenbat eta personalago gaur fedea, ainbat bearrekoago otoitza: azken baten ez da siñismenaren personalizazioa baiño. Otoitz jarduketa bereziak bizi eta fede otoitz onen bideak eta lagungarriak ditugu.

Gaurko kristauak ez dau otoitza ekintza majiko biurtuko, Jainkoa bereganatzeko, Jainkoaz baliatzeko, munduko indarrak bere serbitzuan jarri daitezcan: Jaungoikoa bakarrik (esan gura da, ez bezte ezeren instrumentu dala) billatuko dau otoitzean. Elbideak ezbaridiñak izan leitekez, baiña kristau otoitzak orra eldu bear dau. Beraz, supestizioak ezeze, esperientzi atsegiñak billatzeak, eta beste onurak, atzean geratzen dira, nai ta bidezko izan orreek be nai izan eta eskatzea.

Solidaridadea dogu otoitz-bizitzaren proba (fedearen proba). Anaitasuna kristau mezuaren leenengo momentuan artzen dan "esperientzia" dogu, ez geroagoko ondorio eta eginbearren zerranda. Eta solidaridadea anaitasun onen ekintza dogu. Gaurko kristauak, solidaridade egite bereziez gaiñera, politika eta e-strukturak ulertzen ditu solidaridadearen barruan, gaurko kontzientziaren arabera (gaurko kontzientziak lortu dauan jakitearen neurrian).

Solidaridadea urrekoaz eta urriñekoaz: urriñekoa gaur kontzientziaren barruan sartu dalako (alkar-dependentsia). Solidari-

dadearen eragiña asmatzeko ez dago kristaua izan bearrik, baiña kristauak bere leenengo kristau esperientzian artzen dau solidaderidade bearra (berez au olan da, nai ta egitez soziolojikoki gauzak onela ez gertatu; orduan, baiña, kristautasuna ez da eldu bera izatera). Eskakizun au barri onaren barruan gertatzen da, eta barri ona bezala: anaitasuna ikustea, aurkitzea (bere ondorioakaz) grazia eta doai da eskakizun baiño leenago (bien arteko aldea ezaguna izan arren).

4) *Erantzukizuna eta askatasuna*: Kristau jarrera biak lotzen ditu Kristau barriak. Erantzukizuna Jaungoikoaren eta gizakien, gizartearen aldera. Barri onak ez dauka gogo-arinkeriaz eta erantzukizun ezaz zer-ikusirik. Ebanjelioa eta Alkartasun Barri osoa erantzukizunez beterik dagozela esan daiteke: or jokoan dagoana azken garrantzizkoa da eta. Ebanjelizatze barrian ezin daiteke gitxiagotu, semetzaz eta anaitasunaz erabagi eta erantzun bear da eta. Barri onaren barruan beti, Barri ona danez, barrutik sortzen dan erakartasunez, barru-zentzunez. Barne-zentzun au sorterazi bear da kristau fedean ezitzean. Fedea personalagoa danez, inguruak orretara beartu barik, eta erabagi orretan ain errealdade bikaiña onartzen danez, berez sortzen da ortik erantzukizuna.

Erantzukizun au askatasunagaz alkartzen da: jakiña, ez erantzukizunaren kontrako askatasunagaz (askakeria), bai legekera baztertzen dauanagaz. Askatasun objetiboa: au da, erabagi eta bete-bearrekoa lege beti jakin eta zeatzetan barik, semetza eta anaitasun senean billatuko da. Benetan billatuz (erantzukizuna) semetzak eta anaitasunak zer eskatzen deben (eskatze ori lege da). Askatasun objetiboa, beraz, ez dago legearen kontra, legea non eta zelan aurkitu da auzia. Leengo giza-jakituriak lagunduko dausku, eta orretarako bere azken esanaira begitu bearko: guretzat semetza eta anaitasun sena da.

Erantzukizun subjektiboa: semetzak eta anaitasunak, nai ta erabagi neketsuak artu eta burutu bear, dakarren berezko bar-

ne-askatasuna. Barruko zentzunak, jarrerak, nekeak arinduten ditu: begiratu Kristoren eskakizunak eta, batera, bere zama ariña dala diño (Mt 11,30). Esate baterako: Igandeko eukaristia seme-eta anaitasun izakera eta jarreratik erakarri bear da; or aren esanaia eta bearrizana. Argi dago erantzukizunez artuko dana, baiña baita askatasunez be: zer eskatzen dau emen seme eta anai espirituak, eta zelan jokatuko dot, lege zeatz bati jarraituz ala barne-legearen araura erabagiz? Barne-legea ez da momentuko sentimentuak emoten dauana; or ez legoke erantzukizunik. Barne-legea objetiboa da, eta ez da inondik be indibidualista. Gizakia beti dago alderdi bi oneen artean: askakerian eta legekerian jausteko arriskuan. Eurak dira ulertzeko errezenak, baiña egia erantzukizuna eta askatasuna alkartzean dago.

5) *Istoria eta eskatologia* alkartzen ditu. Kreazioko Jaungoikoa eta errebelaziñokoa benetan eta egitez bat dira bere biotzean, batez be gizakundearen bidez. Errebelaziñoa istoria barruan gertatzen da, ez kontra, ez alboan. Onean eta txarrean, istorian da giza-bidea, eta or aurkitzen dau gizakiak istoriako (eta errebelazioko) Jaungoikoa. Istorian gozatu, istorian jasan, billatu, bidea egin.

Kristau istorian, eta erlejiño istorian, mundua proba-leku edo ta galbide ta zema leku lez ulertu izan danean, baegoan or egi zatirik; ideia oreek ez dira ezerezetik eta oiñarri barik sortu. Mundua (edo istoria) bada galbide be, eta salbemena bear dauana. Alan be, kristau fede orekatsuan ez da istoria bera galbidea, eta salbamera be istorian gertatzen da, istorian zear, istoria ukatu edo ezereztu barik. Bataren garrantzia ez dator bestea ukatzetik: au jazoten dan bitartean ez da oindiño ondo ulertu kristau fedearen egia. Biak artu bear dira batera.

Istoria zelan bizi dan dogu arazoa: seme eta anaitasun zentzunez ala idoloz beterik. Leen "fuga mundi" indartu zan errebelazioa eta eskatologia argitan jarteko. Gaur eskatologia erdi suntsitu da, eta sarritan idoloak agintzen dabela bizi gara. Baiña

sandabidea ez dogu, errealtate biak alkarren kontra jarriz, barriro be "fuga mundi" eskatzea, idoloen esklabutza eta istoria utsaren utsa azpimarretzea baiño.

Jesus ezagutu dauanak, ezagutu bear ditu bizitzako idoloak: seme eta anai izatea eragotzi eta ondatzen dabenak. Au ez da mundua ukatzea berez, mundu onetako gure seme eta anai bizitza desegiten dabenak ukatzea baiño.

6) Gaurko kristauak istoriaren aurrean ikusmena eta entzumenaren erneago ditu: aldiaren zantzuak, *errealtatearen abotsa* entzuteko jarrera. Gaurko mundua da izan be guretzat gure fedea ulertzeko lekua, errebelazifioak gaur berba egin bear daukun lekua. Eta, batera, gaurko istoria dogu gure erantzukizunaren mundua: leengoak lagundu eta adoretu geinkez, baiña azken baten geuk artu bear ditugu gaurko erabagiak, gaurko arazoan artean semetza eta anaitasuna bizitzeko eran. Ezin daiteke beti jakin eta ziurtzat eukiaz naikotu. Erabagi barria artzean, alan be, ez dago ezer barik, semetza eta anaitasuna munduan sortu eta aregotzen dituen erizpideak ditu beti be.

Jarrera zabala eta sakona izango dau batera. Zabala: ona, edozein lekutatik datorrela, berea izango dau, eta orrela artu eta maitatzen dau. Isteria giza-bidea eta Jaungoikoak betidanik gizakia Beragana erakarten dauan bidea. Onak jarrera baiezkorra, positiboa, emoten dautso: Kristautasuna ez da berez ifloren eta ezeren kontrakoa, besteen egiaren agerbide eta beteak baiño.

Sakona: Guzti au (zabaltasun zentzua) ez dau olako orokortasun eta erlatibotasun ia bardintsu eta indiferentean bizi. Kristoren urbiltasunean, adiskidetasunean, batasunean bizi dau, eta alkartasun orretatik ikusten ditu aldiaren zantzuak, eta erabagiten dau. Zabaltasunak ez dau Kristorekiko atxikitasuna gixtizen: zabaltasun positiboa dogu, batera sakona dalako. Zenbat eta zabalago ikusi, ainbat atxikiago, ainbat eta lotuago Kristoren misterioari.

Kontrako litzakezan zantzuak be pentsakizun dira: zergaitik ez dabe onartzen kristoren mezua, berez barri ona dala? Zergaitik ez da onartzen barri onaren barruko eduki zeatzen bat? Gizartea beste bidetik badoa, zer billatzen dau, non dago or kurutz-unea, edo makurgunea? Non sortzen da ulertezina (olakorik balitz)? Gurez partez, naiko ete dogu leengora dei egitea?

#### IV. Amaia, labur

Ebanjelizatze barriak, eta kristau barriak, berezko aldaketa bearra dakarre: kerigmak, katekesiak, liturjiako testoak, ospakizunak, irakatsi eta itzaldiak, kristau ekintzak norantza jo bear daben. Guzti oneek batera emon bear dabe ebanjelizatze barriaren esanaia. Kontzilio ondoren, egin ziran liturji itzulpenak, lan andia, gure izkuntzan inoz egin zanik andiena, eta orren ondoran Elizan izan da aldakuntza mobimentua. Alan be, liturjiako era eta edukiai gagokiezala, askotan oindiño itzulpen azalekoa izan dala autortu bear, urrean. Beste itzulpena gaitzagoa da, eta orretan be saiatu da Elizea eta or gabiltz. Gure adierazpen guztiak benetan semetza eta anaitasun zentzua jartzen dabe aurrean, ala estaldu egiten oindiño edo indar barik geratu?

Gizon barria da Alkartasun barriko kristaua (Pablo). Eta orain ezeze beti be izango dogu barriztatu bearra: Barri ona beti izango da barri eta barriztazaille. Ez da, baiña, apurtzaillea eta ezezkorra, berez. Orregaitik leengoa barruan artu daike, gaindituz, ukatu barik. Gu be prest eta irrikaz gagoz leengoaz eta oraingoaz ikasteko. Jokera positibo onek ain zuzen be kristau barriaren jokera izan bear dau. Konserbadore izateko arriskua badago emen, daukagunari baietza emon eta orretan geratzeko arriskua. Alan be, guk au esan gura dogu: kritika eta bereizpena jarrrera positibotik sortzen dala, leenaren eta oraingoaren laguntzaz Ebanjelioa atzeman guratik.

Ebanjelizatze arazoan borondatea eta goiberoa ez dira naiko, edukien eder eta erakarpenera eldu bear dogu. Baiña goibero ori guztiz bearrezko jakula autortzen dogu. Edukiak euren ede-

rean ikusterik be ez dago borondate barik. Goibero neurritsua gurea, kozientea, baiña goiberoa: kristau fedea biziaren esperientzia da, ez dotriña neutroaren transmisioa. Goibero neurritsu au mezuaren sustraietan, aren bizipenean, sortu eta gorde bear dogu. Esan dogu: otoitz personalean eta solidaridade ekintzan: ekintza orren barruan berbizten da indar neurritsua.

*Luis Arostegi*